



LESAKAKO ALKATETZAREN EBAZPENA

2020ko apirilaren 1ean, Lesakako alkateak honako hau ebatzi du, bertzeak bertze:

“128/2020 EBAZPENA, APIRILAREN 1EKOA, LESAKAKO UDALEKO LANTOKIETAKO JARDUERA PRESENTZIALA BERTAN BEHERA UZTEN DUENA, FUNTSEZKO ZERBITZU PUBLIKOAK IZAN EZIK, KORONABIRUSAREN BILAKAERA EPIDEMIOLOGIKOAREN ONDORIOZ.

COVID-19 koronabirusaren pandemiak ekarri duen osasun krisiak sortutako egoera berezia dela eta, hainbat neurri hartu behar izan dira, batez ere martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez alarma egoera deklaratu zenetik. Testuinguru horretan onetsi da martxoaren 29ko 10/2020 Errege Lege-dekretua, ordaindutako baimen berreskuragarri bat arautzen duena funtsezko zerbitzuak betetzen ez dituzten besteren konturako langileentzat, COVID-19aren kontrako borrokaren baitan herritarren joan-etorriak murrizteko xedez.

Horiek horrela, kontuan harturik aparteko egoera honetan komeni dela ahalik eta gehien murriztea pertsonen joan-etorriak, bidezkoa da onestea ebazpen hau, zeinaren bidez erabakitzen baita bertan behera uztea lan presentziala Lesakako Udaleko lantokietan, salbu eta funtsezko zerbitzu publikoak emateko eskumena duten unitateen kasuan. Unitate horiek saiaturiko dira lan ez-presentziala egiten ahal den neurrian, baina lan presentziala egiteko gaituta egonen dira eman beharreko zerbitzuen izaerak hala eskatzen duenean edo beharrezkoa denean zerbitzu publikoa modu egokian emateko.

Horrez gain, ebazpen honetan zehazten da zein diren funtsezko zerbitzu publikoak martxoaren 18ko 51/2020 Foru Aginduan aurreikusitakoari jarraikiz, arau horretan zerbitzu horiek ezarri baitziren, koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko premiazko neurriak onesten dituen martxoaren 18ko Foru Lege-dekretuan langileriaren arloan xedatzen diren neurriak aplikatzearen ondorioetarako.

Horrenbestez, indarreko araudiak eman dizkidan ahalmenak erabiliz,

AGINTZEN DUT:

1. Bertan behera uztea lantokietako jarduera presentziala Lesakako Udaleko zerbitzuko langileentzat, salbu eta funtsezko zerbitzu publikoen kasuan.

Horretarako, langileek modalitate ez-presentzialeko zerbitzuak eman beharko dituzte, telelaneko edo urrutiko laneko formulak erabiliz, ahal den neurrian posible izan dadin zerbitzu publikoa ematen jarraitzea.

2. Ebazpen honetan araututako ondorioetarako, funtsezko zerbitzu publikoak kolektibo eta unitate hauek ematen dituztenak direla ulertzen da:

- a) Ur hartunea eta saneamendu zerbitzuko langileak.
- b) Argiteria publikoaren zerbitzua eta mantenimenduaren langileak.
- c) Albintek.
- d) Udal eraikinen eta kaleen garbiketa eta desinfekzio lanen enpresak.
- e) Kanposantua.

f) Idazkaritza.

g) Kontuhartzailletza.

h) Erregistro Orokorra.

i) Aurreko ataletan aipatzen ez diren langileak, ezinbestekoak badira aurreko langile-talde horiek ematen dituzten funtsezko zerbitzu publikoak mantentzen eta ematen direla bermatzeko.

j) Edozein kasutan eman beharrekoa den eta erabat ezinbestekoa den Administrazioaren jardura bermatzeko gutxieneko zerbitzuak, ezartzen direnak, mantentzea bermatzeko beharrezkoak diren langileak.

3. Ahalegina eginen da funtsezko zerbitzu publikoaren kalifikazioa duten unitateetan zerbitzuan ari diren langileek beren lana modu ez-presentzialean bete dezaten, posible den neurrian, baina lan presentziala ere egiten ahalko dute eman beharreko zerbitzuen izaerak hala eskatzen duenean edo ezinbestekoa denean zerbitzu publikoa modu egokian emateko, behar-beharrezkoa den denboran soilik.

Beharrezkoak diren prebentzio eta antolaketa neurriak ezarriko dira funtsezko zerbitzu publikoak mantentzeko izendatzen diren eta lana modu presentzialean egin behar duten langileen osasuna babesteko, lanaren ezaugarriak kontuan hartuta.

4. Ebazpen honek sinatzen den unetik hasita izanen ditu ondorioak.”

Hauxe jakinarazi nahi dizut, zure ezaguera eta ondorioetarako, eta ohartarazten zaizu aipatutako erabakiaren aurka jarri dezakezula ondoko helegite hauetariko edozein:

- A. Berraztertzeko errekurtsua, egintza gauzatu duen organo beraren aitzinean, jakinarazpena hartzen den biharamunetik hilabeteko epean (39/2015 Legearen 124.1. art.).
- B. Administrazioarekiko auzi errekurtsua:
 - Nafarroako Justiziako Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzi Salaren aitzinean.
 - Administrazioarekiko Auzi Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena hartzen den biharamunetik kontatzen hasita (29/1998 Legea, uztailaren 13koa).
- C. Gora jotzeko errekurtsua, Nafarroako Auzitegi Administratiboaren aitzinean, hilabeteko epean, jakinarazpena hartzen den egunetik kontatzen hasita (6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa).

Lesakan, 2020ko apirilaren 3an.

Alkatea,

Ladis Satrustegui Alzugaray



Ziurtatzen dut,
Idazkaria,

Maria Jose Larrayoz Ariztegui